El sacerdote Don Andrés de Elorza contrató al maestro pintor Juan Ochoa de Brevilla, vecino de Ondarroa, donde fue alcalde, para pintar y dorar el retablo por un importe de 30.000 reales de vellón. Ante la exigua información de la labor llevada a cabo por estos pintores, algunos estudios, relativamente recientes, tratan de poner en valor los resultados de la policromía por ellos realizada ya que "*entre la compleja trama de aspectos que se dan cita en el género retablístico, tanto técnicos, como arquitectónicos, ornamentales, plásticos, iconográficos o simbólicos, cabe destacar el referente a su cromatismo, campo al que la historiografía especializada no ha prestado aún la suficiente y singularizada atención que merece. En la policromía de los retablos de madera cabe analizar un igualmente complejo horizonte técnico-formal, que armoniza con las estructuras arquitectónicas y los programas plásticos de los mismos, y que fundamentalmente acredita un contenido simbólico y ritual que amplifica el carácter didáctico y parlante de estas obras. En este sentido, el color en los retablos subraya el carácter de la "máquina" apoteósica y persuasiva que éstos poseen, mediante el discurso retórico e hiperbólico de lo cromático, singularmente el dorado, y sus efectos en la sensibilidad o en el inconsciente del espectador. Apelando a la eficacia visual y al contenido simbólico al oro o el mármol y al impacto de tonos vivos, los retablos constituyen también un discurso cromático parejo al arquitectónico o plástico en plena comunidad de intereses.*

Arg: Gorka Salmeron

Las soluciones cromáticas propuestas por los retablos... demuestran el verdadero calibre de la policromía en el conjunto del retablo, ***componente de primer orden y nunca azaroso, sino bien calculado****."(2)*

EL carácter artístico-profesional de la policromía

"A pesar de las dificultades que un tema como el de la policromía conlleva, ya que se trata de un oficio de carácter artístico-profesional, lleno de secretos transmitidos al amparo del taller, haber contado con abundante documentación y obra conservada (en el País Vasco) ha permitido desvelar muchos aspectos hasta ahora desconocidos. Tanto la obra como los contratos han servido para establecer con claridad las distintas fases de la policromía barroca, donde al igual que en la retablística o la pintura de pincel se advierten perduraciones. Este apego a la tradición, generada por un pueblo conservador que no acepta novedades, y por unos maestros que basan su trabajo en la transmisión oral y en la costumbre, no facilitó demasiado la llegada de las nuevas corrientes de la Corte o de los centros artísticos más importantes. No obstante estas innovaciones se fueron imponiendo con mayor o menor celeridad. La llegada de artistas y obras punteras a estas tierras, generalmente en relación con comitentes adinerados, pusieron en contacto a los mejores artífices del lugar con las principales novedades venidas de la Corte."(3)

Arg: M. Urkiola

PAISAJES O MANCHADOS

"Complemento habitual en la policromía, en este período, es el uso de lo que la documentación denomina "paisajes" o "manchados", que no son más que paisajes o arquitecturas fingidas con las que se aporta un efecto pictórico al relieve, generalmente se utiliza en las escenas de los bancos o partes bajas del retablo. La delicadeza depende de la maestría del pintor llegando, en ocasiones, a alcanzar verdadero carácter de miniatura."(3)

El arte barroco

"Inicialmente la palabra "barroco" fue utilizada para significar "raro", "irregular". Pero posteriormente fue perdiendo su sentido peyorativo para convertirse en un calificativo normal para explicar un determinado estilo.

El barroco, además de un período de la historia del arte, fue un movimiento cultural que se extendió en la literatura, la escultura, la arquitectura, la danza y la música desde el 1600 hasta 1750 aproximadamente. Surge en un tiempo en el cual la Iglesia Católica tuvo que reaccionar contra muchos movimientos revolucionarios culturales que produjeron una nueva ciencia y nuevas formas de religión, como la Reforma Protestante.

El barroco renuncia a las modas intelectuales del renacimiento y recurre a los medios que influyen no en la élite sino en las masas: la grandiosidad, el dramatismo, el movimiento, la riqueza, la superabundancia, el erotismo, la vida, la muerte, la seducción, el patetismo, la angustia."(4)

Los antecedentes de la policromía barroca

"Coincidiendo con la escultura gótica y hasta bien entrado el siglo XVI se desarrolló la policromía hispano flamenca o nórdica. Parece que llegó a la península a través de los maestros flamencos, y que aquí se convirtió en una especialidad dentro del arte de la pintura. Su rápida adopción se debe, a la gran tradición que la escultura de madera había tenido en España, a su capacidad para dar los efectos necesarios, a su adaptabilidad a diferentes materiales y espacios, y a la facilidad con la que un material pobre se convertía aparentemente, mediante finas láminas de oro y color, en un material noble y lleno de simbolismo."(3)

Arg: Mertxe Urkiola

Arg: Mertxe Urkiola

MENSULAS

"Magníficas ménsulas o repisas, con cabezas humanas en su parte inferior acompañadas de otras muy poco naturalistas y que asemejan ser casi animales." (1)

Arg: Mertxe Urkiola



Estípite o pilastra

Columna salomónica

COLUMNAS SALOMÓNICAS Y PILASTRAS

"...columnas salomónicas de cinco espiras escoltan las calles laterales, con decoración floreada de gran resultado." (1)

"... el retablo hace un alarde de magnificencia al incorporar elementos estructurales y decorativos que, además de novedosos, resultan singulares. Así, el estípite o pilastra hace acto de presencia (los utiliza por primera y única vez), concediéndole total preponderancia a las columnas salomónicas. Hay también aspectos originales como las ménsulas figurativas. El ritmo decreciente y en parte alternativo de los apoyos, se acompaña de imágenes adecuadas que dan como resultado el retablo más destacable de cuantos se hacen en esos años."(1)

JASPES

"La imitación de jaspes es una de las novedades de esta fase, además de servir como elemento de distensión frente al abrumador dorado, permitía ahorrar oro abaratando el producto. Su uso se hizo habitual hacia finales del siglo XVII y sobre todo durante el XVIII."(3)

Arg: Mertxe Urkiola



Arg: M. Urkiola

REPRESENTACIONES TEXTILES

"La imitación textil es otra constante del barroco, durante esta fase las telas mas demandadas fueron los brocados simples y de tres altos, damascos, primaverales, telas de tabíes, gasas, aguadas y chamelotes entre otras. Para su confección se inspiraron en patrones importados de las fábricas sederas más pujantes en cada momento, que los talleres textiles locales copiaban sin pudor. Es significativo que en algunos contratos se solicite que se imiten ***"patrones de tela de Italia",*** *algo lógico si tenemos en cuenta que durante el siglo XVII las industrias de Génova y Venecia fueron las más destacadas creadoras de damascos y brocados de Europa."(3)*

PIGMENTOS

"...los documentos insisten en que se usen ***"los más finos (pigmentos) de la corte",*** *lugar donde se podía abastecer sin problemas de cualquier material que necesiten en su trabajo."(3)*

"En esta fase de la policromía barroca la esencia reside en crear juegos de luces mediante el contraste en la luz emitida por el oro y las sombras que aporta el color."(3)

Arg: M. Urkiola

L. Olagizon

Bibliografia:
(1) El retablo barroco en el Goierri. Ignacio Cendoya. Kutxa fundazioa. Donosita 1992.
(2) Retórica y color. Sobre la policromía en los retablos barrocos. Juan Jesús López-Guadalupe Muñoz. Universidad de Granada.
www.upo.es/depa/webdhuma/areas/arte/actas/3cibi/documentos/47f.pdf -
(3) Evolución de la policromía barroca en el País Vasco. Fernando R. Bartolomé García. Eusko Ikaskuntza. 2000. Número 19 – Pag. 455-470.
(4) www.euskomedia.org/pdfAnlt/arte/19455470.pdf

TELLERIARTE-BRINKOLA INGURUA SUSTATZEKO FOROA
Lenburrek deitutako bilerak

Arg: Jose Luis Ugarte

2008ko otsailean ekimen txalogarri bat jarri zuen abian Lenbur fundazioak Legazpiko hainbat lagun Telleriarte-Brinkola ingurua sustatzeko foro batean parte hartzera gonbidatuz. Gonbidatuen artean honako hauek zeuden: ordezkari politikoak, udal teknikariak, kultur elkarteetako ordezkariak, ingurugiro eta turismo arloko eragileak, auzo elkarteak eta abar. Horien artean Burdinola el elkartea ere bazegoen. Esan behar dugu, Burdinola elkarteak aukera ezin hobea ikusi zuela hasieratik bere kultur egitasmoa foro horretan azaltzeko eta bultzatzeko eta, horrenbestez, orain arte deitutako bilera guztietan parte hartu duela. Foroaren abiapuntua Lenburrek idatzita zeukan txosten bat izan zen, honakoa: "Tematización del Parque de Mirandaola (Mirandaola-Telleriarte-Brinkola). Un proyecto turístico-cultural para Legazpi". Eta lehenengo bi bileretan txostenaren inguruko eztabaida eta iritzi trukeak izan ziren. Agerian geratu zen, hasieratik, partaideen artean zegoen ikuspegi desberdina. Burdinolak behin eta behirro azpimarratu zuen abiapuntu sendo bat izatearen garrantzia. Hurrengo bi bileretan, aurrekoak bezain jendetsuak izan gabe, Telleriarte-Brinkolan egin daitezkeen ekintza zehatzen inguruan hitz egin zen, epe motz eta ertainean egin daitezkeenez, batez ere, kontuan izanik premia eskatzen duten hainbat eginkizun badaudela eta lanean lehenbailehen hastea garrantzitsua dela, egitasmoa hozten joan ez dadin. Ideia eta material asko jarri zen mahai gainean, bai Lenburren aldetik, bai eta Burdinolaren aldetik.Lau bilera egin ziren uda aurretik, batetik bestera hilabeteko epea utziz, bataz beste, baina, tamalez, udaz geroztik, dinamika hori hautsi egin da eta ez da gehiago deitu. Burdinola elkartean uste dugu foro horrek aurrera egitea oso garrantzitsua dela, Lenburrek jakin behar duelako herritarrok nola pentsatzen dugun eta zertan lagun dezakegun. Uste dugu, halaber, oso aberasgarria dela ikuspegi desberdinak jasotzen dituen egitasmo bat moldatzea, parte-hartzea bultzatzeko, nahiz eta ondo dakigun gaur egun oso zaila dela, edozein arlotan, herritarren inplikazio hori lortzea. Azkenik, iruditzen zaigu, foro eraginkorra izateko funtzionamendua zehaztu behar dela eta bideak eskaini behar direla bertan egiten diren ekarpenek aurrera egiteko.

Ez da lan erraza, baina beharrezkoa iruditzen zaigu, kontuan izanda, gainera, fundazioaren finantzaketa handiena erakunde publikoetatik datorrela. Legazpin, gainera, badaukagu nora begiratu foro kontuetan.

Jose Luis Ugarte

"LEGAZPIK ETA GOIERRI OSOAK POTENTZIALITATE HANDIA DUTE"

Aitor Azpiazu Burdinolako bazkide eta aldizkari honetako laguntzaile fina da. Horretaz gain urteak eman ditu, bere Brinkolako baserria ardatz , inguruko nekazal kulturaren hizkuntza eta etnografia ondarearen inguruko ikerketa lanetan . Dagoeneko bilduma zabal eta aberatsa osatu eta katalogatu du. urte honetan zehar argia ikusiko du Burdinolak argitaratuta.

Burdinola ikertzaile gaztearengana hurbildu da lanaren gorabeherak ezagutzeko eta datorren argitarapenaren edukiaren aurrerapena zuenganatzeko.

BUR.- **Denbora luzean ari zara lan hau prestatzen... Zer dela eta jarri zinen honetan?**
A.A.- Ba 1995 urtea izango zen eta baserrian "zeozer" jaso behar nuela pentsatzen nuen, zenbat gai galdu aurretik. Materiala jasotzen orduntxe ekin nuen. 1998 urtetik aurrera berriz, hasi nintzen hiztegi forma ematen jasotakoari. Handik aurrera ere lan asko egitea suertatu da, baina hasiera hartako asmoa baserriko zaharrenen oroimenak gordetzea zen, materiala jasotzea. Uste dut asmo horrek bultzatu gaituela beti.

BUR.– **Aurkeztu hitz gutxitan egin duzun lana.**
A.A.- Nire baserriko lexiko eta etnografia apunteen bilduma bat da, hiztegi forman egindakoa. Berriemaile nagusiak, nire aitona zena eta nire amona izan dira. Hauei jasotako materialak dira lan honen ardatza. Hauen ondoan bada ekarpen ezberdinak egin dituen jende gehiago ere bada, noski.

BUR.- **Zein da jarraitu duzun lan metodoa?**
A.A.- Lan metodoa bi alderditan bana daiteke. Batean bilketa dugu eta bestean idazketa. Bilketa apunte eta grabaketen bidez egindakoa izan da. Hemen hasieratik zorrotz samar aritu ginen eta egindako lanarekin gustura geratu gara. Idazketa neketsuagoa izan da. Izan ere, nire idazketa eredutik hasi eta hiztegi konbentzional baten forma eman behar izan diot azkenean, hortaz hiztegia behin eta berriz idaztea eta berridaztea suertatu zait.

BUR.- **Baduzu lagundu, bideratu edota zuzentzen zaituen norbait?**
A.A.- Bai horixe. Laguntzaile nagusiak berriemaileak izan dira. Horretaz aparte, baserrian izan ditut bestelako laguntzaileak ere. Hauen artean Mariaje izeba aipatu beharrean nago, honek apunte lexiko pila bat jaso duelako hiztegirako. Hortaz gain, egoerak eta kontzeptuak deskribatzeko marrazkiak egin ditu, oso estimagarriak. Hauetaz gain, hirugarren laguntzaile talde bat bada: baserritik kanpokoa. Hemen ere jende pila baten laguntza izan dut. Hauen artean ezin ahaztu Jose Luis Ugarte eta Iñigo Aranburuk egindako ekarpena. Hortaz, garbi dago egile bakarrarena baiño auzo-lana izan dela, erabatekoa gainera.

BUR.- **Lana hiztegi gisa antolatuta dagoenez, zer motatako informazioa aurkituko dugu hitz baten azalpenean?**
A.A.- Hitzak sarreretan antolatuak daude eta hauek alfabetoaren arabera ezarriak. Sarrerak Legazpiko hizkeran (legazpieraz) izango dira eta atzetik hauen itzulpena edota esanahia etorriko da, adibide batekin batera. Zenbait sarrerak berriz, joko etnografiko zabala ematen dute (garia, gaztaina, sugea...) eta hauetan apunte etnografikoak eta grabaketen transkribapenak ere erantsi ditut.

BUR.- **Zenbateko zabalera hartu du jaso duzun informazio bildumak?**
A.A.- Ba azkenean 5400 sarrera baino gehiago izango dira, testu hutseko 350 bat orrialdetan banatuta. Argazkiak 800 inguru-edo izango dira. Badakit informazio asko dela, baina baserrian akaso beste hainbeste jaso zitekeela susmatzen dut, batez ere grabaketen haritik tira eginda.

BUR.- **Ezustekoak ere izango zenituen? Sorpresarik bai? Espero ez zenuen zerbait edo norbait?**
A.A.- Bat baino gehiago izan dira ezustekoak. Baina ba-

tez ere Zegamako kasua aipatuko dut. Zegaman grabaketa batzuk egiten hasi ginen, Anjel Irigoras eta biok, bertako lexiko eta etnografia materialak jasotzeko. 2005 urtea zen orduan. Ordurako erabat barneratua nuen Brinkolako hizkera eta segituan konturatu nintzen Brinkolan (Legazpi osoan bezala) eta Zegaman zein antzeko hizkerak dituzten. Jose Luis Ugartek beti esan izan zidan hori, baina orduan probatu nuen horrela zela. Brinkolan bezain gertu sentitu ditut hizkera eta gaiak Zegaman. Badirudi Zegama Brinkolaren jarraipena dela, nahiz eta beste erreka baten bailaran egon. Eta batean eta bestean pertsonaia berak ere agertu izan dira batzutan: "Argindei" artzaina, Tomas Urruzti ganadu tratularia, Joan Pitxi txerri tratantea, Kandido Aizpeolea artzaina, mandazainak, ikazkinak... Brinkola eta Zegama lotzen dituen zilborreste sendo eta ezkutua dago Aizkorrondoan, Legazpi osora ere luzatzen dena. Oñatirekin ez naiz hainbeste esatera ausartzen, baina uste dut Oñatik badituela antzekotasun jakinak Goierriko herri batzuekin, Debagoenako beste herri batzuekin ez dituenak.

BUR.- **Zein zailtasun aurkitu duzu lana garatu bitartean?**
A.A.- Zailtasun handienak, lehen esan dudan bezala, idazketarekin lotutakoak izan dira. Nik hasiera hartan idatzia nuena, hiztegigintza konbentzionalera "moldatu" behar izan dut. Lan astuna eta zakarra da, ordu asko eskatu dituena. Hori izan da zailtasun nabarmenena.

BUR.- **Anekdota azpimarragarriren bat?**
A.A.- Nahiz eta anekdota bat izan ez, lan honek zenbat gauza berezi pentsarazi dizkit, batez ere lanaren zabalera ikusita. Hasieran jaso zitekeen guztia zenbat hitz berezi (legazpierakadak) eta halako ezaugarri dialektiko berezi batzuk bakarrik zirela pentsatzen nuen. Eta denboraren joanean lan mardul samar bat egiteko moduan izan gara. Horrek gure zaharren jakintzaren zabala adierazten du. Eta ekuazio sinpleetara joaz, azkar datoz galderak: baserri batean hau egin bada, halako zenbat egin daitezke Brinkolan? Eta Legazpi guztian? Eta Goierri osoan? Ba Brinkolan beste bospasei egin daitezkeela esango nuke. Legazpin hogeiren bat seguru, eta Goierri osoan ehundik gora. Izugarria da galdu dena eta galduko dena.

BUR.- **Nola moldatzen zara ikerketa eta eguneroko lana uztartzeko?**
A.A.- Ahal dugun bezala. Baina ez da nirea kasu bakarra, Burdinola bezalako erakunde txiki batean ere dozena erditik gora izango dira behintzat horrela jokatzen dutenak. Ez dut uste nirea kasu berezia denik.

BUR.- **Lana amaitzear duzu...Aurreikusten zenuen emaitzara iritsi zara?**
A.A.- Bai eta ez. Gauza asko jaso dira, beharbada uste baino gehiago. Baina beti geratzen dira gehiago aztertu nahiko zenituzkeen gauzak. Hala ere, lanari muga bat jarri behar izaten zaio, bestela lanak berak irentsi zaitzake. Eta nik, oraingoz proiektu asko, askotxo, dauzkat bakarrari lotuta geratzeko. Izpi gazia badu ere, orokorrean gustura geratu naiz, batez ere nire inguruan, laguntza emanez, zenbat jende saiatu eta jator ibili den ikusita.

BUR.- **Non edota zertan kokatuko zenuke lan honen ekarpena Legazpiko eremu kulturalean eta Euskal Herrikoan oro har?**
A.A.- Ez da erraza horri erantzutea. Ez dut uste ekarpen handirik egin denik lan honekin. Beharbada bi ekarpen txiki egin dira lan honen bidez, biak ere orijinalak direlako. Batetik, lexikoa eta etnografia uztarri berean lotzen saiatu naiz, biak maila berean jartzeko asmoarekin. Euskal Herrian egin diren lanetan behintzat, lexikoan oinarritutako hiztegietan alderdi etnografikoa nahikoa bazterrean geratu da. Hiztegi eta bilduma etnografikoetan berriz, kasu oso jakinak kenduta, hizkuntza jasotzeko eta adierazteko metodoak oso zalantzagarriak izan dira. Hemen biei eman nahi izan zaie garrantzia.
Bestetik, lanaren eremua mikroskopikoa da, baserri baten inguruan ari delako gehienean. Horrela, berriemaile kopurua mugatua da erabat, eta beharbada horri kontra egiteko berriemaile hauetako bakoitzarekin sakontasun handiko lana egin da. Normalean, salbuespen berezi batzuk kenduta, hiztegi arruntetan berriemaile asko izaten dira eta ez dira sakonki ikertuak izaten. Gureak duen minimalismo horrek berezia egin dezake lan hau. Eta berorrek argi uzten dut Legazpiren, eta berarekin Goierri osoaren, potentzialitatea zein erraldoia den gaur egun ere arlo honetan.

BUR.- **Aipatu ez dugun zerbait gehiago gaineratu nahi duzu?**
A.A.- Lanak jende interesgarri asko ezagutzeko aukera eman dit. Lehenik baserrikoen mundua sakontzen lagundu dit, nire senideak gehiago ezagutzeko aukera izanez. Bestetik, baserritik kanpora jende asko ezagutzeko moduan izan naiz. Jose Luis Ugarte batetik hasiz, bizirik den Goierriko ikerle handiena jotzen dudana. Bestetik, hil zen Julian Alustiza "Aztiri" apartaren lanera eta izatera ere gerturatu nintzen, azken urteetan niretzako mito bizidun bat zenean. Hortaz gain jende interesgarri eta baliotsu asko: Jerardo Elortza, Balbino amezkoarra, Isabel Elortza, Anjel Irigoras, Blanca Urgell, Antonio Berasategi, Burdinolako jendea... Eta beste asko.

Mertxe Urkiola

LAS FOTOGRAFÍAS DE IGNACIO AGIRRE SE EXPONEN EN KULTUR ETXEA

Arg: M. Guerreiro

Erakusketa honen bidez, Legazpiko jatorria zuen Ignacio Agirre Montegi (1861-1942) argazkilari madrildarraren lana ezagutarazi nahi du Burdinola elkarteak. Historialari, ikerlari eta argazki gaietan zaletuak direnentzat material berria eta jakingarria dela iruditzen zaigu, Euskal Herriko argazkigintzaren historian bere lekua izan dezakeena, gainera. Ikertutako materiala 1900 eta 1908. urte bitartekoa da eta bertan Legazpiko, Euskal Herriko, Espainiako, Europako hainbat hirietako eta Tangerreko irudiak agertzen dira.

Erakusgaiaren zabalera (83 argazki) eta Kultur Etxeko aretoen mugak direla eta bi erakusketa saio antolatu dira: Lehena, 2008ko azaroaren 14tik 28ra eta hurrena 2009ko urtarrilaren 16tik 30era.



Burdinola, en colaboración con Kultur Etxe, ha dado a conocer al pueblo de Legazpi el material fotográfico que nuestra asociación ha recuperado del fotógrafo madrileño de ascendencia legazpiarra, Ignacio Agirre Montegi (1861-1942). Creemos que es un material nuevo e interesante para historiadores, investigadores y aficionados en general, y que puede tener, además, cabida en la historia de la fotografía vasca. El material investigado data entre los años 1900 y 1908. Hay imágenes de Legazpi, Euskal Herria, buena parte de la península ibérica, varias ciudades europeas y Tánger.

Las fechas fijadas para dos exposiciones, dado el material a exponer (83 fotografías) y la limitada capacidad de la sala de Kultur Etxe, han sido del 14 al 28 de noviembre de 2008 y del 16 al 30 de enero del presente año 2009.

19.1.– Burgos.1908.

11.1.– Erroma.1906.

1.2.– Constancitaren lehen jaunartezea. Madrid. 1900

KIPUTZEN BIDEA GARBITZEN

Arg: Jose Luis Ugarte

Otsailaren 16ko goiz eder batean Burdinola elkarteko bost lagun elkartu ginen Udanatik Oñatira doan bide zaharraren tarte bat garbitzeko. Izan ere, gure elkarteak, Izadi-Zaleak mendi elkartearekin batera, Legazpi-Oñati ibilaldia egin nahi genuen otsailaren 24an. Garbi-garbi utzi genuen eta, era horretara, ibilaldi egunean arazorik gabe igaro ahal izan genuen bertatik. Oraindik ere, oñatiarrek "Kiputzen bidea" esaten diote Legazpitik Oñatira doan bide zaharrari, eta gogoratzen dute bide horretik, udazkenetan, Gabiria, Mutiloa eta Zeraingo baserritarrak sagar saltzera joaten zireala azokara. Asto ilada luzeak izaten omen ziren.

El 16 de febrero Burdinola activó su brigada de limpieza para despejar un tramo del antiguo camino que iba de Legazpi a Oñate, cerca del puerto de Udana.

EUSKARAREN BERRI ONAK...

Martxoaren 2an, igandean, Aita Julian Alustizaren azken liburua ("Euskararen berri onak... eta txarrak") aurkeztu zen Aztiri Bat elkartean. Horretarako Burdinola elkarteak euskal kulturako lau gizon ezagun bildu zituen bertan: Paulo Agirrebaltzategi (liburuaren moldatzailea), Felix Ibargutxi kazetaria, Joseba Intxausti ikerlaria eta Joxan Artze poeta. Era horretan, Aita Julian zenaren liburuak ondo merezitako aurkezpena eta harrera izan zuen.

El 2 de marzo, domingo, tuvo la presentación del último trabajo póstumo del padre franciscano Julian Alustiza, para la cual Burdinola reunió en la sociedad Aztiri Bat a personalidades de la cultura vasca.

Arg: Jose Luis Ugarte

TXINPARTAK ALE BEREZIA

Maiatzaren 8an Burdinola elkartearen "Txinpartak" ale berezia aurkeztu zen Kultur Etxean, Legazpiko IV. Mendeurrenaren ekitaldien bornean. Patrizio Etxeberria enpresagizonaren inguruko alea zen, aurten lantegiak 100 urte bete dituela aitzakia hartuta. Aurkezpena oso jendetsua izan eta liburudendatan ere oso harrera ona izan zuen.

El 8 de mayo Burdinola presentó en Kultur Etxea un número especial del Txinpartak dedicado al empresario legazpiarra Patrizio Etxeberria, con motivo del centenario de la creación de la empresa.



Arg: Jose Venegas

SEGURARA ANTZINAKO BIDEETATIK

Maiatzaren 18an, Izadi-Zaleak elkartearekin batera, mendi-ibilaldi bat antolatu genuen Segurara antzinako bideetatik. Deialdiak izugarrizko arraskasta izan zuen eta 200 lagunetik gora parte hartu zuten. Hori bai, dena esan beharra dago, aurretik ibilbidea eta egitaraua oso ondo prestatu genituen. Burdinolak eta Zeraingo Udalak aspaldi ibili gabeko bideak garbitu zituzten. Azpimarratzekoa da, halaber, Segurako udalak legazpiarroi egin zigun harrera bikaina, argazki, luntx eta guzti.

El 18 de mayo Burdinola, junto a Izadi-Zaleak, organizó una exitosa marcha montañera a Segura por antiguos caminos, recordando a aquellos legazpiarras que repetidamente tuvieron que realizar dicho trayecto hasta la desanexión.

MUSIKA KONTZERTUA SAN MIGELEN

Ekainaren 22an, Doinua Musika Eskolakoekin elkarlanean, musika ekitaldi bat antolatu genuen bigarren urtez San Migel ermitan. Klarinete taldea eta Ganbera taldea aritu ziren, Jesus Castillejo eta Arantza Rodriguezen zuzendaritzapean, hurrenez hurren. Ekitaldi hori Burdinola elkartea San Migel ermita biziberritzeko egiten ari den ahaleginean kokatu behar da.

El 22 de junio, con el objetivo de revitalizar la ermita de San Miguel y en colaboración de los alumnos y profesores de Doinua Musika Eskola, se organizó un concierto de música.

Arg: Mertxe Urkiola

Arg: Jose Venegas

ELIZA LEGAZPIKO HISTORIAN

Irailaren 11n, IV. Mendeurreneko ospakizun garrantzitsuen atarian, Burdinola elkarteak Legazpiko elizaren gaineko bi liburu aurkeztu zituen Legazpiko Kultur Etxean: “Historia eclesiástica de Legazpi” eta “Eliza Legazpiko historian”. Aitortu beharra dago urte askotako fruitua izan direla. Liburuen testuen egilea Zumarragako Antonio Prada ikerlaria da eta, gure ustez, bi liburuen kontsulta ezinbestekoa izango da Legazpiko historia ulertu ahal izateko.

El 11 de setiembre tuvo la presentación de dos publicaciones promovidas por nuestra asociación sobre la historia de la iglesia de Legazpi. El autor de los textos ha sido el investigador de Zumarraga Antonio Prada que, todo hay que decirlo, se ha volcado de lleno en su realización.



AITORLEKUA BERRITUTA

Irailaren 29an, San Migel egunez, Felix Pinillosek birgaitutako aitorlekua ikusteko aukera izan zuten San Migel ermitara hurbildu zirenek. Felixek, Burdinola elkartearen aginduz, ermitan bertan baztertuta zegoen aitorlekua konpondu eta tratatu zuen, musutruk. Ez da Felixek Burdinolaren aginduz egiten duen lehenengo lana. 2006an, horrela, ermitan bertan dagoen hiru hankako jarlekuaren erreplika egin zuen.

El 29 de setiembre los asistentes a la celebración litúrgica de San Miguel, pudieron contemplar el confesionario recién restaurado por Félix Pinillos, a petición de Burdinola. De dicha manera, se recupera otro elemento más de la tan querida ermita de San Miguel.

AIZKORRIN BARRENA I. EDIZIOA

Urriaren 12an, Legazpiko hainbat elkartekin elkarlanean, Euskal Herri mailako “Aizkorrin Barrena” mendi martxa antolatu genuen Brinkolatik abiatuta. 700 lagunetik gora ibili ziren 16 eta 31 km zituzten ibilbideetan eta aurreikuspenak erabat bete ziren. Burdinola elkartea ibilbideen diseinuaz eta haien historia azaltzeaz arduratu zen. Zurezko 40 seinal jarri ziren ibilbidean zehar ibiltariak izenak ikasi ahal izateko eta zorionak jaso genituen horregatik.

La Asociación Burdinola ha sido una de las responsables de la exitosa I. edición de la marcha montañera “Aizkorrin Barrena” realizada el 12 de octubre de este año. Participaron más de 700 montañeros venidos de toda Euskal Herria.

Arg: Jose Venegas

LA AZAROSA CONSTRUCCION DEL FERROCARRIL EN LEGAZPI

Arg: Jose Venegas



El pasado 30 de octubre tuvo lugar en Brinkola una charla sobre la construcción del ferrocarril en el Goierri, basada en el libro "La construcción, evaluación y consecuencias del Ferrocarril del Norte en Gipuzkoa". Éste es el segundo tomo que sobre dicho tema han escrito Pello Joxe Aramburu Ugartemendia y Luis Mari Intza Igartua y cierra una ingente labor de investigación en torno a la titánica empresa llevada a cabo en Gipuzkoa, al final del siglo XIX, con el fin de dotarla de un medio de vital importancia económica y de acuciante modernidad.

El presente libro estudia la construcción del tramo Beasain-Alsasua, empresa nada fácil dada la especial orografía de Gipuzkoa. Por ello, este trabajo constituye un valioso documento sobre lo que supuso la construcción del trazado del ferrocarril a su paso por nuestra villa que, por las dificultades expuestas, fue el último en ser ejecutado.

Detalle del plano 3.2, correspondiente al tramo de la vías del ferrocarril entre Otzaurte y Urretxu, fechado el 19 de marzo de 1858, en el que se aprecia el trazado urbano de Legazpi.



Diversos detalles obtenidos del plano 3.2, correspondiente al tramo de la vías del ferrocarril entre Otzaurte y Urretxu, fechado el 19 de marzo de 1858.



Zona Guriditegi-Olazar (Brinkola)



Zona Igaralde-Elorregi (Brinkola- Telleriarte)



Zona San Migel– Olaberria



Zona Bengolea

71.– Manzanares, Madrid. 1900eko apirilaren 11 (Ignacio Agirre).

Bazkide egin zaitez! Hazte socio/a!

IZENA.....
Nombre
HELBIDEA.....
Dirección
TELEFONOA..... **E-MAIL** .....
Teléfono
K.K. (20 zenbaki)......
C.C.

URTEKO KUOTA / Cuota anual: 40 €

BURDINOLA ELKARTEA
Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
Tel: 943034071 burdinolaelkartea@euskalnet.net

TXINPARTAK
ERREDAKZIO TALDEA: Manolo Salmeron eta Mertxe Urkiola
LAGUNTZAILEAK: Eva Aztiria, Mariano Guerreiro, Gorka Salmeron, Jose Luis Ugarte, Jose Venegas.
MAKETAZIOA: ***Burdinola***
LEGE-GORDAILUA: SS-1077/01